

*“Hey babe, take a walk on the wild side,  
Said hey honey, take a walk on wild side”*

(Lou Reed)

## Sweet Gizotso

Enpresako arduradunek ez zuten batere denbora galdu udalak Txorokileko harrobi zaharra atzera ere zabaltzeko baimena - bedeinkapen guztiekin - eman bezain pronto. Eta, beraz, lehenengo enpleguak, ingeniari bi, agindu zituzten bertara. Harrobia zegoeneko lurren jabeak pozarren zeuden, dirualdia jasoko zuten azkenean, nahiz eta horretarako parke natural ondoko baso eta mendi zati handi bat suntsitu behar.

Bi saguzar errenek eman zieten ongietorria hiritik zetozen ingeniariari. Begi itsu eta handiekin begira geratu zitzaizkien Txorokileko kobazulo barrutik zertara zetozen igarri guran. Gazteak ziren, neska eta mutil bat, enpresan praktikan zihardutenak, seguru. Lan-arropa berria zekarten, edo hori zen pick-up-etik jaistean haien kasko zuri aratzek iradokitzen zutena. Harrobi berrirako azken planoak behar zituen neurketak egitera bidaliak ziren.

Behar zituzten tresnak lur-oroarakotik ateratzeaz batera entzun zuten, lehen aldiz entzun zuten. Lehenengoz, orro ozen antzeko bat, gero kantu eta txistu doinuak aditu zituzten, argi eta garbi. Itzal bat ere ikusi ei zuten inguruko basoan. Hasiera batean ikaratu ziren, ez zutelako mortu hartan inor espero, baina kantu eta txistu doinuak bertatik urrundu zirenerako neskaren mingaina bere lankidearena topatzeko ahaleginetan ari zen, sutsu aritu ere. Biak lurrera jausi ziren, eta igelek erruten zuten lokatz potxingoan, bilin-bolonka ibili ondoren, amaitu zuten. Arin batean erantsi zituzten laneko arropak eta haien gorputz ezin beroagoek berehala bat egin zuten. Harrobian dinamitak nola, hala eztanda egin zuten. Hasperen sakon baten oihartzunak astindu zituen Ubideko elizako kanpaiak. Barre algara batzuk basoan barrena galdu ziren.

Langileak enpresara itzuli ziren. Ez zuten neurketarik egin. Harrituta begiratzen zioten elkarri. Ez zuten ulertzen zer gertatu zen. Arropa zikin eta apurtua zekarten,

baina pozik zeuden. Handik egun batzuetara berriro gertatu zen bertaratu ziren hondea-makinetako langile bik, lana alde batera utzita, larrua jotzeari zoro moduan eman ziotenean. Enpresan Sweet Gizotsoaren kondaira zaharra aipatu zuen norbaitek.

Bazen, behinola, iretargi beteko gauetan txistuka eta uluaka kantatzeari ekiten zion mutikoa; hori zen, behintzat, Ipiñaburuko auzokideek esaten zutena. Baserriko logelako leihora irteten ei zen bere larrurik apainduenez jantzita, foular farfailtsu luze eta soil bat, gorputz biluzi hura nekez estaltzen zuena, zakila izter bien artean gogor ezkututzen zuen bitartean – Hey Gizotso!- Horrelaxe dantza egiten zuen, aldakak astiro eta gozotoro mugituz.

Baina Ipiñaburuko auzokideek bazekiten jakin kantu horien ostean berehala gerriko baten jipoiak eta ondorengo negarraldi luzea etorriko zirena. Iretargi amandrea bera negar-anpolutan hasten zen mutikoarengatik. Goizetan, mutikoaren aurpegia ubelduta agertzen zen, apenas ez zen gauza kortatik simaurra soloetara ateratzeko. Aitak, urrundik, begi zorrotzez so egiten zion. Amak, bitartean, isilik zirauen. Hala ere, idi egoskorak nola, mutikoak hala eutsi zion bereari, horregatik jasotzen zituen zigorrak gero eta krudelago bihurtu baziren ere.

Behin, auzoko emakume guztiak baserriko kamaran batu ziren artojorran jarduteko. Kontu kontari eta kantu kantari ozenen ziharduten unean blausta isildu ziren denak. Harri eta zur gelditu ziren kamarako atetxo aldera begiratzean. Mutikoa amaren ezkontza soinekoaz jantzita zetorren laguntzera. Gona oso luze geratzen zitzaionez, zati handi bat moztu zion belaunetaraino agerian utzita. Aurpegian, begietan eta ezpainenetan, bazekartzan amak okasioetarako erabili ohi zituen koloretako margoak eta hautsak, esfortzu handiz Areatzako kinkalleruei erositakoak. Amak, semea horrela ikustean, negar isilari eman zion. Burua beheratu zuen lotsaren lotsaz. Listua trabes gelditu zitzaion eztarrian. Gainontzeko emakumeek ez zuten ezer esan, arean ez, artaburuak saskietan utzi eta joan egin ziren.

Une hartan ebatzi zuten. Zenbait hilabete lehenago gurasoek Legutiano aldean Vasco-Navarroren lanetan behar egiten zuen Aguraingo petrikilo batekin berba egin zuten. Hark ez zien batere itxaropenik eman semea osa zedin; kontrara, mutikoak

portaera “desbideratuari” eutsiz gero, behin betiko neurriak hartzea iradoki zien. Onena mutikoa zikiratzea izango zela esan zien. Horrela, gau hartan aitak semea arrastaka eraman zuen kamararaino eta bertan giltzapetu zuen. Alferrikakoak izan ziren amaren negarrak eta mutikoaren garraxiak. Biharamunean, Ubideko motzailea etorriko zen laban erdoildu eta kamuts batez mutikoa zikiratzera, zekorrekina egiten zuen bezalaxe.

Baina probidentziak nahi izan zuen gau hartan Iretargi amandreak mutikoaren alde egitea. Kamarako zurajearen zirrikitu guztiak bere argiarekin gainezkatu zituen, iltzeak askatu ziren, oholek eztanda egin zuten eta mutikoa airetik eramanda basorantz irten zen indar handiz. Erdi-otso, erdi-gizon bihurtu zuen, basoko isperitu. Harrezkeroztik, Ipiñaburuko auzokideek maiz ikusi ei dute Gorbeiako haitzetan ibiltzen, kantuka eta txistuka. Gizotso da, jendeak jakin gabe han eta hemen pasioak eta desirarik beroenak pizten dituen, Sweet Gizotso maite duenarentzat.

Bada, handik gutxira izango zen, Kubako gerra lehertu zenekoan, nobentaiotxoan seguraski. Ipiñaburun zeuden beldurrez ikaraz hel ez zitezen amerikarrak bertara, bada, Ipiñaburun egin zen batzarrean, urrean izango zen Bizkaian bakarra, esan ei zuten hara eta Undurragara sartuko zirela zazpi barkukada. Kainoiak prest zeuden Barazar gainean, eta amerikarrak Undurragan sar ez zitezen errekan hasi ziren harriak ipintzen, handiak, gogorrak eta ikaragarriak, Oketako basotik Fraiskuk ekarriak. Bitartean, Sweet Gizotso haitzetatik mira handiz ikusten zuen bere auzokideen zalaparta. Zazpi ontzi bete marinela? Sweet Gizotso lerdetan zeriola zegoen marinela yanki ilehorien etorrerarekin, hainbestearaino ezen Zadorrako ur sistema osoa bete zezakeen lerde harekin guztiarekin. Hamaika marinela ilehori, gihartsuak, itsasoak beltzaranduak... Sweet Gizotzok honezkero bere burua ikusten zuen marinela horien guztien elastiko marradunak atzaparrez urratzen eta gorputz bero haien izerdia banan-banan bere mihi luzearekin zurruputzen, azken tantaraino zurrupatu ere. Ez zuen inolaz ere espero auzotik irten gabe halako zortea. Zazpi barkukada. Behingoagatik betekada ederra hartuko zuen. Baina, atzenean, putza, amerikar marinela ez ziren Ipiñaburura sekula iritzi. Kuba betiko galdu zen eta Sweet Gizotso burumakur – ez ordea luzaroan zuhaitz enborretan igurtziz kontsolatu behar izan zuen hankartea –

gelditu zen. Fraisku tentela, horrexegatik zen herriko tontoena, behin eta berriro madarikatu zuen Sweet Gizotsok.

Orduan hartu zuen deliberoa. Jendearengan sexu grina piztuko zuen izadiko indarra izango zen. Inguruko beato eta santujalerik handienak ere ez ziren libratuko. Euren baitako beldur eta lotsa guztietatik askatuko zituen. Sweet Gizotso.

Gau batez Otzerimendiko San Justoko karobira isilka-mixilka hurreratu zen. Labea iziotu berri zuten karegin bi harrapatu zituen lotan aldameneko txabolan, elkarren ondoan zeutzala . Gauda epela zen, udagiroykoa ia, goroldio usaina zeukan harizti fresko hartan. Noizbehinka, labetik altxatzen zen ke zuri trinko batek ingurumariko zuhaitz guztiak gerriraino janzen zituen. Egurraren txinparten leherketa txikiak adi zitezkeen. Sua zen, Ama Lurraren beraren sabelean kareginak izioturiko sua. Sweet Gizotsok egur gehiago baino ez zuen bota behar benetako sutea zabal zedin. Karegin biek zurrunga suabeak egiten zituzten, txerritxoek egin ohi bezala. Ez zuten Sweet Gizotso igarri, baina giroan zerbait zebilen, susma zitezkeen. Halako batean, esku batek ondoko suteko ilinti epel bati heldu zion, alboan lotan jarraitzen zuen kareginaren alkandora zabaldu, eta ilintia aire freskoak intera batez dardarazi zituen titiburu eta bular gihartsuetatik leun-leun pasa zuen. Bihotz beltz eder handi bat marraztu zion ile mataza hartan. Bat-batean iratzarri orduko karegin harrituak oihu egin zuen:

– Zer duk hau? Jesus, Maria eta Joxe!

– Beti jan eta beti gose! Beste kareginak atoan erantzuteaz batera haginkada eman zion titiburu batean.

Ordurako gizonezko bien bizarrak bazeuden musuetan kiribilduta txabola ere labe bihurtutako hartan. Biek batera lortu zuten beroak inoizko karerik onena eman ei zuen. Sweet Gizotso, gaueko itzalak lagun, haitzetan gora kantuka eta txistuka aldendu zen.

– Hey Gizotso!

Gau hartan ere, pastore bati, Arrabako txabolan, inoizko maitegarrien begitandu zitzaizkion bere arditxo gurin iletsuak. Txakurrak beste alde batera begiratu zuen.

Baina gertaerok birtute eta ondra handiko jendearen belarrietara ailegatu ziren. Bi eskuekin estaltzen ahalegindu ziren. Bekatu zikintzat hartu zuten dena, madarikaziotzat. Eragilea nor zen ere berehala jakin zen, iretargiak gizotso bihurtu zuen Ipiñaburuko mutiko hura alegia, infernuko Satan bera. Madarikazioa izan ala ez berdin zion, bekatuak garbitu behar ziren, kosta ala kosta. Horregatik Zeanuriko sei abadek eta gotzain batek, erreka lamiak desagertarazi zituzten berberak, meza sakratua eman zuten Andra Mariko parrokiari, herriari zabalduko bekatuak garbitzeko asmoz. Bestalde, Zubiarte palazioko jauntxoa buru zelarik, ehiztari talde bat osotu zen. Harro-harro paratu ziren euren *Sarasqueta* berriei Manterolaren argazki-makinaren aurrean. Alferrik baina, Sweet Gizotsok Lekandako haitz gorrietan erraz saihestu zituen. Bada bi ehiztari, elkarri musua ematen, ikusi omen zituena. Nork daki.

Ziertoagoa da neskato biri gertatutakoa. Bazen denbora bat Sweet Gizotso ez zela agertzen, gerratik honatz gutxi gorabehera. Ikusia zuten azken biderrez etsi-etsian ahalegindu ei zen Zeanuriko emakumeak herria indarrez hartu zuen gudaroste frankistaren bortzaketatik salbu uzten. Gizonek beldurraren beldurrez Bilborantz ihes egiten zuten bitartean, emakume batzuk berekin basora eramatea lortu zuen, ez denak ordea. Herriko sei abadeek eta gotzainak ez zuten sekula emakume horien aldeko mezarik eman, ezta otoitzik txikiena ere. *Sarasquetek* ez zuten zaratarik egin. Artean, Sweet Gizotsok Supelegorreko kobako lakua malkoz bete zuen, isil-isilik. Bada, puska batean giroa goibeletik joan zen eta bizitzak kostata egin zuen aurrera. Barazarreko zentrala egiten hasi ziren preso errepublikarrak etxera itzuli ziren, eta haien ordean, Andaluziatik, Gaztelatik, Extremaduratik milaka behargin gosekilik bertaratu ziren. Langile erdaldun beltzuskie horiek arrotz hutsak ziren herriko jendearentzat. Egun sargaritsu batean Sweet Gizotso Palomares inguruko iturrira ur freskoa edatera jaitsi zen. Dzanga-dzanga ari zela, bidetik Undurraga ondoko baserri batetik neskatila eder bat zetorrela konturatu zen. Buruan pegarra handi bat zekarren. Sweet Gizotso iturri gaineko mazusta-sasien artean ostendu zen neskatoaren edertasuna hobeto mirestarren. Horretan murgilduta, langileen egurrezko barrakoietatik, ze bertan zeukaten ia herriska oso bat, adin bereko neskato andaluziar beltzarantsu bat iturrira hurbildu zen. Berak ere bazekarren pegarra guraso egarrituentzat betetzera. Neskato biek luzaroan begiratu zioten elkarri, mutu, txintik esan gabe, zirkinik egin barik.

Zerbait esatera ausartu zirenean, mingainak trabatuta gelditu zitzaizkien. Ez ziren euren hizkuntzetan elkarri ulertzeko gai. Orduan eskuak bete zuten lana. Elkarri askatu zizkioten brusetako botoiak bular zuri tenteak agerian uzteko. Esku batez, iturriko ur freskoz laztandu zituzten euren titi gazteak. Beste eskuaz sasietatik mazusta beltzak hartu eta zanpatu zituzten zuku guztia ateratzeraino. Zukuak laban egiten zuen euren gorputz biluzietan barrena, sabelperaino. Bertan tantaka jaso zuten, iturri agortezin batetik , elkarri jaso ere. – Hey Gizotso!

Ilunabarrean, barrakoietako langileek iretargi amandrearen argitan erromeria egin zuten, agarrao estiloan, haiek ondoen zekiten moduan, beharbada inoiz baino agarraoagoan. Biharamunean Sabinoren alderdiak klandestinitatea hautsi zuen, probintziako gobernadore frankistari egin zion dei Sodoma berri hura, bere ohitura arrotz eta lizun guztiekin, infernuko sutan betiko desagertarazteko. Handik gutxira, bailarako gazte guztiek agarraoan dantzatzeari eman zioten.

Beste hankabiko bati jazotakoa ere aipatzen dute zenbaitzuek. Arratiako gizona Bilbora zihoan maiz, Lemoako tranbian eta beti garaiz. Bere artean zioen umore txit alaiz: - traje berri batekin Usansoloko Olimpo klubean geratuko naiz -. Egun horretan euri langarra ari zuen, gogotik, haize deslai hotza zebilen, desordua zen gainera; horregatik tranbia hutsik zihoan, gizonzkoa eta gidaria baino ez, antza. Bidaia atseginago egiteko edo, gidariak Neil Young-en “Downtown” kanta aukeratu zuen “Mirror ball” izeneko KD-n. Ozenki ipini zuen. Kantaren lehenengo akorde bizkor eta sentsualak entzuten hasi zireneko, hutsik ziruditen tranbiako jarlekuen artetik itzal bat ziztu bizian zutitu eta musikaren erritmopean dantzatzuz artean ohartzeke zegoen gizonzkoarenganantz poliki-poliki hurbildu zen. Haren parera helduta, jantzita zeraman garbardina gris luzea supituki zabaldu eta otso baten buztanaz aurpegian brausta jo zuen. Gizonzkoak salto egin zuen jarlekuan eta Sweet Gizotso ikusi zuen biluzten eta tranbiako barrei oratuta, jirabiran, dantzan. Auskalo nondik ateratako ziklista kasko batez Sweet Gizotsok aldiro estaltzen eta desestaltzen zuen bere hankarteko zakilote gorria. Zoro-zoro mugitzen zituen aldakak. Ipurdiarekin zirkuluak marrazten zituen airean. Gizonaregana hurreratzen zen bakoitzean, kaskoa hankartetik altxatzen zuen haren aurre-aurrean eta mihi luzea atereaz gizon turdituaren aurpegitik

heze-heze pasatzen zuen. “Peace and Love” hasi zenean, mugimendu zoroak lasaitu zituen, akaso sentsualago bihurtu zituen, eta gizonari pega-pega egonda, suge baten antzera, inguratu zitzaion, belarrien puntak buztanaz ferekatzeari utzi gabe. Tranbiaren kristal guztiak lurrundu ziren; hala ere, abade zomorro batek hirutan egin zuen aitarena ondotik igarotzean. Atzenean, musika eta euria atertu ziren, tranbia solo artean lotu zen, eta Sweet Gizotso lainoarekin batera kantuka eta txistuka desagertu zen. Gizonak hobeto pentsatu zuen, egun horretan ez zen Olimpora joango, ezta Fiorera ere, agian ez zen berriro inoiz joango. Etxera, emaztearengana, zalu joango zen tranbian ikasitako dantzak erakustera. – Hey Gizotso!

Horrela, urteak joan urteak etorri, Sweet Gizotsoren atzaparretatik igaro omen ziren bailarako ia biztanle guztiak. Ia. Bada oraindik ikusi duela esaten duena.

Portzierto, Txorokileko harrobia ez zen berriro zabaldu, lanak hastera joaten ziren langileak, sexu berdinekoak izanagatik ere, bat-batean elkarrekin sutsu bezain gartsu maitemintzen zirelako. Horrela, lana ahaztuta eta alde batera utzita, egun osoa goxo-goxo larrutan ematen zuten saguzar erren eta itsuen begiradapean, igelek erruten zuten lokatz potxingo hartan. Eta basoan kantuka eta txistuka:

– Hey Gizotso! Bizitzaren alde basatitik ibili nahi duk? Tu, turu, tutu...

**AKAURI**